

EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN FINANTZA LAGUNTZA JASO DUTEN AFA-REN JARDUERAK

6. ARDATZA: EMAKUMEEN PARTE HARTZEA LAN MERKATUAN.

Neurria: Emakumeei lanbide prestakuntza ematea

1. ekintza. Emakumeen prestakuntza

Azalpena:

Arabako Baserritar Inguruko Emakumeen Sareak Era-Berri taldearen bitartez egiten dituen jardueren programa, landa inguruetakoko emakumeen prestakuntza eta gizarteko parte hartzea sustatzeko. 2001ean eginiko jardueren artean, hauek nabarmendu daitezke: teknologia berriei buruzko prestakuntza ikastaroak ematea, emakumeen topaketak antolatzea eta informazio aldizkaria egitea.

Egikaritza 2003/12/31n (finantzaketa komunitarioaren amaiera): 53.518,16€

2. ekintza. Emakumeen gizarteratzea eta laneratzea

Azalpena:

Arazo ezberdinak dituzten emakumeak laneratzeko proiektua: analfabetismoa, iraupen luzeko langabezia, eta prostituzioan lan egin duten edo egiten duten emakumeak. Emakume horiei laguntza pertsonala, prestakuntza eta lan orientazioa emateko jarduerak dira.

Neurria: Emakumeen enplegua sustatzea lanbide jakin batzuetan

1. ekintza. Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Azalpena:

Hurbileko zerbitzuetan enplegua sortzeko laguntzak dira. Euren burua zaindu ezin duten taldeei etxean bertan laguntza eta zaintza ematen zaie, batez ere hirugarren adinekoei. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak laguntza lerroa onartzen du urtero, langileen kontratazioan bitartekari lana egiten duten enpresa pribatuentzat. Langile horiek garbiketa lanak egiten dituzte etxeetan, janariak prestatzen dituzte eta etxeko beste zeregin batzuetan ere aritzen dira, oinarrizko osasun laguntza emateaz gain.

Neurria: Emakumezko enpresarien sareei laguntzea

1. ekintza. Hitzarmena AMPEArekin (Arabako Emakume Enpresaburu eta Profesionalen Elkarte)

Azalpena:

AMPEArekin lankidetzan aritzea, emakumeen enpresa jarduera indartzeko. Izan ere, hori da elkartearen funtsezko helburua.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

<http://www.ampea.es>

Neurria: Aukera berdintasunaren printzipioa integratzea bultzatzea

2. ekintza. Etxeko arduren banaketa sustatzea

Azalpena:

Gela Mugikorra abian jartzea, elkarbizitzan eta harreman pertsonaletan gizonen eta emakumeen arteko erantzukidetasunari buruz sentsibilizatzeko. “Elkarbizitzarako kontratuaren eskuliburua” eta ikus-entzunezko hainbat material argitaratzea, aipatutako Gela Mugikorrean jarduerak garatzeko material osagarritzat erabiltzeko.